

7. FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Enpresa batek ondo funtzionatzeko zein bezeroen esperientzia eta arrera ona izateko behar dituen baliabideak dira. Baliabide hauek hainbat taldetan sailkatu ahal dira; gisa-baliabideak, finantza-baliabideak, baliabide fisikoak eta intelektualak.

1. BALIABIDE FISIKOAK

Proiektua diseinatu eta garatu beharko dugun egiturak eta ekipamenduak hauek izango dira:

Prototipo eta fabrikazio ekipak

- Inprimagailu industrialak, kaskoaren egiturak eta barne-babeserako piezak sortzeko.

Material espezifikoak

- Polikarbonato eta Abs : Polikarbonatoak erresistentzia handiagoa eskaintzen du inpaktuarekiko eta beroarekiko, abs-a zurruntasuna eskaintzen du baina, moldeatzeko erraztasunagatik.
- Babes-materiala: Gel eta babes material bezala EVA erabiliko da, kolpea "Xurgatzeko"
- Sentsore espezializatuak :
 - Sentsore inertzialak, mugimendu-patroi okerrak edo kaltea eragin dezaketen mugimenduak detektatzen laguntzen ditu.
 - Presio/indar sentsoreak: Gorputzaren zati desberdinak jasaten duten kargaren eta presioaren banaketa neurtzen dute
 - Elektromiografi sentsoreak: Gainazaleko elektrodoak erabiltzen dira muskuluak sortutako jarduera elektrikoa erregistratzeko
 - Tenperatura sentsoreak: Gorputzak igorritako beroa neurtzen dute
- Ordenagailu eta garapen informatikoa: Sentsoreen datuetara sartzeko aukera emango diguten software-programak erabiltzea

1. BALIABIDE INTELEKTUALAK

Galea vitaeren hasierako osagai handia marka identitarioa da: izena, logotipoa eta irudi bisuala. Hauek sinaduraren irudia jasotzen dute eta gure artikulua gainerakoetatik bereizten dute, bestalde, gure proiektuaren oinarri teknologikoa GV-Impact izeneko algoritmo propioa da. Datuak sentsore-sareak biltzen ditu, eta informazioa gure aplikazio mugikorrera bidaltzen da.

2. GIZA BALIABIDEAK

Erabiliko dugun giza baliabideak hauek izango dira:

- Zuzendari taldea
 - Zuzendari finantzarioa: Finantza-planifikazioa eta aurrekontuak, kostu eta gastu kontrola eta diru fluxua eramango ditu.
 - Zuzendari komertziala: Salmenta eta prezio estrategiak definituko ditu, bezero garrantzitsuen kudeaketa eta merkatuaren analisia egingo du.
 - Teknologia zuzendaria: Software edo produktu teknologiaren garapena gainbegiratu, azpiegiturak, zibersegurtasuna eta barne-sistemak kudeatu eta teknologia berrien ebaluazioaz arduratuko da.

- Operazio zuzendaria: Ekoizpen prozesuak gainbegiratuko du efizientzia eta kalitatea bermatzen, hornikuntza kateak eta logistikaz arduratuko da.
- Kudeatzaileak (gerenteak)
 - Departamentu bakoitzean gerente bat edukiko dugu, helburu horiekin: Haren zonaldeko estrategiak planifikatu, taldea kontrolatu eta zereginak banatu, emaitzak ebaluatu eta zuzendari taldera komunikatu eta zuzendaritza taldetatik heltzen diren aginduak betetzen direla ziurtatu.
- Teknikoak
 - Talde bakoitzak tekniko espezializatuak osatuko dute, hau da; programadoreak, diseinatzaileak , RRHH-ko teknikoak, finantzarioak, ingeniariak.
- Administrazio taldea
 - Enpresaren antolaketa modu arinean funtziona dezan laguntzen dute, betebeharrak hauekin: Arreta telefonikoa, mezuen kudeaketa, barneko kudeaketa eta jendearen arreta.

3. FINANTZA BALIABIDEAK

- **Diru erabilgarria**

Hasierako kapital bat da, proiektua martxan jartzeko, aurrezki pertsonalak izan ahal dira, hasierako inbertsio bat egiteko. Honek laguntzen du proiektua modu arduratsuan abiatzea, kanpoko zorpetze handirik gabe.

- **Inbertsioak**

Beharrezko izaten da, kanpoko inbertitzaile txikiak edo ekintzailetza-programen bidezko finantzaketa osagarria lortzea (hau da, mikro-inbertsioak). Honek asko laguntzen du enpresaren hazkunde azkarrago bermatu ahal izateko.

- **Kreditu-lerroak**

Gastu handiak edukitzen ditu enpresa bat zabaltzeak, beti aukera bat dago banku-instituzioekin diru-mailegu arinak negoziatzeko. Betiere, interes txikiko eta epe motzeko finantzaketa bilatuz.

- **Laguntzak**

Proiektua abian jartzeko edo garatzeko eman daitezkeen diru-laguntzak.

- **Diru-sarrerak**

Proiektuak sortzen dituen irabaziak, ordainketa bakarretatik, harpidetzetatik edo bestelako iturrietatik.



BIBLIOGRAFIA:

- García,B.-Tena, D.-Bernabeu, M^a E.- López, C. (2025). Itinerario personal para la empleabilidad. TULIBRODEFP.
- STARTINNOVA plataformako materiala.
- <http://blog.hubspot.es/sales/modelo-canvas>
- Logoa: <http://www.chatgpt.com>
- irudia: <http://www.chatgpt.com>